

AZTERKETARIAREN EGITEKOA: 2. MAILA

Ahozko azterketa

Epaimahaikoen aurrean gin beharreko ariketak

- 1. ZATIA. Aztertzaileen galderak
- 2. ZATIA. Argazkiari buruzko elkarrizketa (*)
- 3. ZATIA. Gaia garatzea (egitekoa):

(2/3 minutu)

(3/4 minutu)

(3/4 minutu)

Guztira 10 bat minutu



Orain gaia bakarrik prestatu behar duzu:

15 minutu inguru dituzu gaia prestatzeko.

Prestatzen amaitzen duzunean, itxaron aztertzaileek deitu arte.

Prestatu behar duzun gaia:

Gaia: BIDEO-ZAINTZA KAMERAK



Egitekoa

Kutzazain automatikoetan, dendetan, bulegoetan, aparkalekuetan, semaforoetan, bidegurutzeetan... nonahi aurki ditzakegu bideo-zaintza kameraren bat. Seguruago gaude zaintza sistema berri horri esker? Zertan gelditu da herritarraren intimitatea?

Gai horri buruz hitz egingo duzu epaimahaikoen aurrean, 3/4 minutuan.

Zehatzago

Zure ustez, zergatik jartzen ari dira gero eta kamera gehiago gune publikoetan? Azaldu zer sentitzen duzun kamera bat zuri "begira" dagoela konturatzen zarenean: beldurra, lasaitasuna, kezka... Eman zure iritzia: Non amaitzen da seguritatea eta non hasten da norberaren intimitatea? Zergatiak eman.

Gogoratu 3/4 minutuz hitz egin beharko duzula.

(*) Aztertzaileentzat:

- 2. zatirako edozein argazki eman, 1. argazkia izan ezik.

EZ IDATZI EZER ORRI HONETAN

Amaieran orria eman aztertzaileei

AZTERKETARIAREN EGITEKOA: 2. MAILA

Ahozko azterketa

Epaimahaikoen aurrean gin beharreko ariketak

- 1. ZATIA. Aztertzaileen galderak
- 2. ZATIA. Argazkiari buruzko elkarrizketa (*)
- 3. ZATIA. Gaia garatzea (egitekoa):

(2/3 minutu)

(3/4 minutu)

(3/4 minutu)

Guztira 10 bat minutu

Orain gaia bakarrik prestatu behar duzu:

15 minutu inguru dituzu gaia prestatzeko.

Prestatzen amaitzen duzunean, itxaron aztertzaileek deitu arte.

Prestatu behar duzun gaia:

Gaia: ANIMALIEN ESKUBIDEAK



Egitekoa

Izaki bizidun guztiek tratu txarrak ez pairatzeko eskubidea dute: Animaliak ezin dira leku itxietan gorde; ondo zaindu behar ditugu animalia guztiak; ikerketarako animaliek beste tratu bat mereziko lukete agian.

Gai horri buruz hitz egingo duzu epaimahaikoen aurrean, 3/4 minutuan.

Zehatzago

Eman zure iritzia: Animaliek sentitzeko, sufritzeko gai dira? Zer diozu animaliek jasotzen dituzten tratu txarrei buruz? Justifikatu daiteke animaliei mina ematea kasuren batean? Zure ustez, animalien eskubideen aldeko legeak badute eraginik gizartearen? Proposatu animaliak babesteko ideien bat.

Gogoratu 3/4 minutuz hitz egin beharko duzula.

(*) Aztertzaileentzat:

2. zatirako edozein argazki eman, 2. argazkia izan ezik.

EZ IDATZI EZER ORRI HONETAN

Azterketa deialdia: **2008ko ekaina**



Eusko Jaurlaritzako Erakunde Autonomiaduna
Organismo Autónomo del Gobierno Vasco

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HADE



Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

2. ZATIA

ARGAZKIARI BURUZKO ELKARRIZKETA

2. MAILA

Gaia: Bideo-zaintza kamerak



1 . argazkia

Elkarrizketa bideratzeko galderak:

- Zer etorri zaizu burura argazkiak ikustean?
- Non daude jarrita kamerak? Zergatik?
- Nolakoa da jendearen erreakzioa, ikusten ari zaren argazkietan?
- Zenbat kamera daude zure etxetik lantokira/ikastetxera bidean?
- Zer sentitzen duzu kamera bat ikusten duzunean? Beldurra, lasaitasuna, ...?
- Zein da zure iritzia bideo-zaintza kamerei buruz? Beharrezkoak dira?

HADE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

2. ZATIA

ARGAZKIARI BURUZKO ELKARRIZKETA

2. MAILA

Gaia: Animalien tratu txarrak



2 . argazkia

Elkarrizketa bideratzeko galderak:

- Zer ikusten duzu argazkietan?
- Zer etorri zaizu burura argazkiak ikustean?
- Zergatik tratatzen ditugu txarto animaliak?
- Non eta noiz gertatzen dira tratu txarrak? Zergatik?
- Noizbait gaizki tratatu duzu animalia bat?
- Zer sentitzen duzu animalia bat gaizki tratatzen ari direla ikusten duzunean?